

‘Core’ sarrerak **1.077 milioi** eurotan **egonkor** mantendu dira, pandemiak eta interes tipo negatiboek baldintzatutako urtean

Kutxabankek 180,3 milioi euroko irabazia izan zuen 2020an, horniduretara 346 milioi bideratu ondoren

- **Maileguen eta higiezinaren estaldurak aurreratu ditu, eta horniduretara aurreko urtean baino 214 milioi gehiago aldaratu ditu. Zuhurtziazko irizpide honen ondorioz, irabazia % 48,8 murriztu da**
- **Pandemiak jotako familia eta enpresei laguntza zehatzak emateko 4.175 milioitik gora erabili ditu**
- **Jarduera komertzial biziak oinarritzko produktuetan merkatu-kuotak hobetu ditu: hipoteketan, zorro delegatuetan, inbertsio fondoetan, pentsio planetan eta BGAEtan**
- **Administratutako Baliabideak % 6,9 hazi dira, ondareen kudeaketa nabarmen igo baita: izenpetze garbietan lider izan da, zorro delegatuekin, batik bat**
- **Mailegu-inbertsioa % 6 hazi da, mailegu hipotekarioek bultzatuta, inoizko hazkunde handienak izan baitituzte**
- **245 milioitik gora murriztu du zalantzazko aktiboen bolumena, alorreko berankortasun txikienetakoa du, % 2,32koa, eta estaldura-maila handienetakoa, % 77,9koa**
- **Errentagarritasunean alorreko buruan da, eta kaudimenean duen lidertza sendotzea lortu du, % 17,8ko erabateko kaudimenarekin eta TIER1 ‘core’ ratioarekin**

2021ko otsailaren 25ean. Kutxabank Taldeak urtearen hasieran bere buruari ipinitako **helburu nagusienak beteta** amaitu du 2020. ekitaldia, nahiz eta pandemiak erabat baldintzatutako epealdia izan den. Honela, aurrez uste bezalako bilakaera izan dute ‘core’ sarrerek, marjinen hazkundeak, aktiboen kalitatearen hobekuntzak, kaudimeneko lidertzak eta eraldaketa digitalak.

Nola nahi ere, osasun-krisialdiak gure ekonomian izango duen behin-betiko eraginak sortzen duen ziurgabetasunaren aurrean, estalduren zuzkidurak egitean zuhurtzia goreneko irizpidearekin jokatzeko erabaki du finantza Erakundeak, eta **457 milioi** euro bideratu ditu atal honetara, **346 milioi ekitaldiko emaitzen** kontura, eta beste **111 milioi kapitalari kenduta**. Azken hau, ikuskatzailearen gomendio berriak jarraituz egin da,

zalantzazko aktiboen mailakako estaldura % 100era iritsi arte. Guztira, beraz, aurreko urtean baino **325 milioi euro gehiago**.

Zuzkiduren politika honen ondorioz, 2020. urtean lortutako emaitza garbia **180,3 milioi** eurokoa izan da, 2019. urtean baino % **48,8 txikiagoa** beraz.

Kutxabankeko presidenteak, **Gregorio Villalabeitiak** esan du “**ekitaldi oso zaila izan da, finantza-alor osoarentzat benetako iraupen-testa izan baita. Sendotasunez gainditu dugu, beste behin Kutxabanken negozio ereduak duen sendotasuna eta egokitzeko gaitasuna agerian utzita, Bankuak alorrean zuen egoera erlatiboa hobetzearekin batera**”.

BPG etengabe erori den testuinguruan, langabeen kopurua handitzearekin eta interes tipoak behin eta berriro erortzearekin batera, Kutxabanken negozio ereduaren sendotasuna bere banka-sarrera errepikarien egonkortasunean ikusten da, **1.076,9 milioi** euro, 2019an lortutakoen oso parekoak. Aipagarria da **emaitza hauen % 50**, interes tipoekin menpekotasunik ez duten **sarrera dibertsifikatuetatik datorrela**.

Bezeroen negozioan jarduera oso bizia izan du Kutxabanke, bilakaera konparatibo hobearrekin. Horrela lortu du **oinarrizko produktuetan** merkatu-kuota irabaztea, hau da, hipoteka berrietan, kontsumorako maileguetan, zorro delegatuetan, inbertsio fondoetan, pentsio planetan eta BGEAtan, eta aseguruen jardueran.

Hori guztia arrisku-profil txikiarekin eta likidezia eta kaudimen egoera sendoekin. Adierazle hauek, gainera, hobetzen jarraitu dute eta **agintaritzen eta merkatuen aintzatespena** jaso dute. Europako Banka Agintaritzaren gardentasun ekitaldiak, seigarren urtez jarraian, Espainiako finantza-sistemako buruan kokatu du Kutxabanken kaudimena. Gainera, espainiar merkatuan kapital eskakizun txikiena duen erakundea da, eta Europako MREL eskakizun murriztena duena.

Kutxabanken kontseilari delegatuaren, **Javier Garcia Lurueñaren** ustetan, “**ekitaldiko gakoa ‘core’ produktu nagusien bilakaera izan da, eta aipagarriak izan dira hipoteken hazkundea, balantzetik kanpoko produktuak eta aseguruen jarduera, balio-digitaleko proposamenean oinarrituta**”.

Administratutako Baliabideetan aurreikuspenak gainditu dira


2020. urtean bezeroen baliabideek izan duten bilakaera negozioaren ezaugarri deigarrienetako bat izan da, aurreikuspen guztiak gainditu baitira **izenpetze berrien** bolumenean, nola lortutako **errentagarritasunean**. Atal hau % **6,9** hazi da, eta negozio sareetan **68.609 milioi** eurotan kokatu da.

Kutxabank Taldeak merkatuaren konfiantza jaso du, beste behin, **Inbertsio Fondoen** alorrean, eta lider izan da **izenpetze berrietan, ondarearen hazkundera eta errentagarritasunean.**

1.553 milioi euroko izenpetze berriak izan ditu orotara, aurreko urtean baino **% 124** gehiago, eta merkatuko **seigarren taldea** da kudeatutako fondoen bolumenari dagokionez, bere merkatu kuota **oinarriko 71** puntu hobetuta. Bere produktuek lortu duten errentagarritasuna ere, alorreko erakunde nagusien artean handiena izan da.

Kudeatutako zorroen sisteman, non duela 15 urte Bankua ereduzko erakundea baita, bezero kopuruari dagokionean **lidertzan** kokatu da Kutxabank.


Inbertsio fondoen merkatu-kuotaren bilakaera (%)



Epigrafe honetan, **aurreikuspen produktuek** izan duten bilakaera nabarmentzekoa da, kudeatutako ondarearen arabera laugarren kudeatzailea baita, **10.000 milioi** eurotik gorako ondarearekin. Banakako aurreikuspen produktuetan euskal merkatuan lider argia da, **% 49ko** merkatu-kuotarekin -oinarriko 108 puntu gehiago- eta 6.000 milioi eurotik gorako ondarea kudeatuta -2019an baino % 5 gehiago-, guztira 275.000 bazkide ditu.

Mailegu inbertsioa % 5,9 hazi da

2020. urtean osasun krisialdiak sortutako eraginak samurtzeko hainbat neurri zehatz abiarazi ditu Kutxabankek, gizartearekin duen konpromisoaren erakusle. Honela, finantza-babesean **4.175 milioi** eurotik gora eman dizkie familia eta enpresei.




Negozio sareetan **42.947 milioi** euroko mailegu-inbertsioarekin amaitu du urtea, 2019koaren aldean **% 5,9** aipagarria hazita, beraz.

Bilakaera positibo honen atzean, Handizkako Bankak, Banka Korporatiboak eta Erakundeetako Bankak eginiko lana dago. **Banka Korporatiboaren** mailegu-inbertsioa **% 14,9** igo da aurreko urtearekin alderatuta, finantzazio eragiketa berrietan **2.000 milioi** euro inguru sinatu eta gero.

Erakundeetako Bankak, halaber, **% 30eko** hazkundera izan du, eragiketa berrietan **2.600 milioi** euro bereganatuta.

Enpresen sarean, **epe ertainerako eta luzerako aktiboen kontratazioak** igoera deigarria izan du, hein handi batean Erakundeak kudeatu dituen Covid-laguntzen baitan, krisialdian bere bezeroei laguntzeko konpromisoari jarraiki. Aitzitik, **zirkulatzailerako finantzazioaren** zenbatekoak **moteldu** egin dira ekonomia-ziklo okerragoaren ondorioz. Hala ere, eragiketa berrietan 1.669 milioi euro sinatu dira.



Hipoteka-mailegu berrien kontratazioa **3.535 milioi eurotik gorakoa izan da**, **% 9,7** handiagoa

Taldeak jarduera bizia izan du norbanakoei emandako hipoteka-mailegu berrietan, eta atal honetan **3.535 milioi** euroko kopurua gainditu du, urte arteko hazkundea **% 9,7an** kokatuta. Beraz, pandemiaren aurretik finkatutako helburuak gainditu ditu, kontratazio berrietan hilabeteko emaitza onenak lortu ditu, euskal merkatuan ezbairik gabeko lidertza finkatu du, eta **Espainiako merkatuan % 10era** arte hazi du **sarrera-kuota**.

Aitzitik, **kontsumorako maileguen** kontratazioek krisialdiaren eraginak jasan dituzte, eta ekitaldia amaitzean **% -14,9** murriztu dira, xehekako sarean **454** milioi euroko bolumena kontratatu ondoren.

Emitzen kontua

2020 urte osoan zehar interes tipoek etengabeko gainbehera jasan dute, abendu amaieran urtebeteko Euriborra **% -0,50an** kokatu den arte. Banka-negozioarentzat erabat kontrakoa den testuinguru honetan, Interesen Marjinak 2019ko pareko mailan kokatzea lortu du, hau da, **566,4 milioi** eurotan, **% -0,4** bakarrik jaitsita.

Kutxabank Taldearen emaitzak, 2020ko abenduan

Milioi euro	2020ko abendua	%Δ
Interesen Marjina	566,4	-0,4
Komisioak eta aseguruak	510,5	0,4
Banka negozioaren 'core' sarrerak	1.076,9	0,0
Dibidenduak eta baliokidetasuna	64,9	-1,3
FOE	0,8	-48,4
Beste Ustiapen Emaitzak	61,5	e.a.
Marjina Gordina	1.204	10,8
Administrazio Gastuak	-578,2	-3,7
Amortizazioak	-61,2	3,3
Ustiapen Marjina	564,6	32,2
Saneamenduak eta narriadurak	-346,3	161,54
Beste irabazi eta galerak	16,6	-86,0
Zergen aurreko emaitza	234,8	-43,1
Emaitzak eta bestelakoak	-54,6	-10,3.
Taldearen emaitza	180,3	-48,8

Zerbitzuen sarrerak **510,5 milioi** eurokoak izan dira, aurreko urtean baino **% 0,4** handiagoak. Hazkunde hau zorro delegatuetan, inbertsio fondoetan, pentsio planetan eta BGAEtan lortu diren hazkundeetan oinarritu da. Igoera hauei **aseguruen negozioaren** bultzada gehitu zaie, alor honen ekarpena aipagarria izan baita, **% 7,4koa**, guztira **122,6 milioi** euroekin.

Honela, banka negozioaren **'core' sarrerak**, hau da, Interesen Marjinak, komisioen sarrerek eta aseguruaren sarrerek osaturiko multzoa, **1.076,9 milioi** eurora iritsi dira.

Interes Marjinetik haratago zerbitzuek sortutako sarreretan alorreko buruan da euskal finantza Taldea. **Sarreren dibertsifikazioa** du alde, kudeatutako bezeroen baliabideen negozioak, aseguruak eta banka-zerbitzuek sortutako sarrerei esker, interes tipoek negatiboan jarraituko duten testuinguruari aurre egiteko.

Partaidetuen zorroak emaitzetan izan ohi duen eraginak beti bezain indartsua izaten jarraitu du. Dibidenduek eta bazkide diren enpresek sortutako emaitza errepikarien ekarpena **64,9 milioi** eurokoa izan da, 2019an baino **% -1,3 txikiagoa**.

Finantza Operazioen Emaitzak 0,8 milioi eurokoak izan dira, eta Beste Ustiapen emaitzak 61,5 milioi eurokoak, gordailuzaintzako erakundea aldatzean lortutako konpentsazioa jasota. Honela, **Marjina Gordina 1.204 milioi** eurotan kokatu da, **% 10,8** hazita.

Administrazio gastuei eusteko irizpideak ezarri dira betiko legez, eta **% 3,7** murriztu dira, kostuak jaitsi eta baliabideen erabilera hobetzeko politikaren ondorioz, erakundearen helburu estrategikoetako bat eraginkortasunaren kudeaketa baita. Bilakaera honekin, Taldearen administrazio gastuen ia **% 90** jasotako zerbitzuen sarrerekin estaltzen da.

Mailegu-zorroaren eta beste aktiboen **saneamendu-mailari** dagokienez, zuhurtziazko mailari eutsi zaio berriro maileguen eta higiezinen arriskua, bai eta aurre-erretiroen kostua estaltzeko. Gainera, hornidurak handitu dira Covid-19ari eta negozioaren bestelakoei lotuta gerta litezkeen gastuei eta ezustekoei erantzuteko, aurrez-aurre duen eskakizun maila handiko testuinguruari erakundeak bermekin aurre egin ahal izateko. Guztira, **346 milioi** euroko hornidurak egin dira, 2019 osoan baino **214 milioi** gehiago. Horri, ikuskatzailearen gomendioei jarraituta kapitalari egotzita zenbatu diren hornidurak gehituta, **zalantzazkoen estaldura ratioa % 77,9ra** igo da, espainiar finantza-sistemako onenetakoa, aintzat izanik Kutxabank Taldea dela sisteman batez beste hipoteka gehien duen erakundea.


Emaitzen fiskaltza kontutan hartu ondoren, Taldearen **emaitza trinkoa 180,3 milioi** eurokoa izan da, 2019an baino **% 48,8 gutxiago**. Cajasur Taldeak **12,4 milioi** euroko ekarpena egin dio emaitza honi.

Adierazle nagusiak hobetu dira

Pandemiak agerian utzi ditu Kutxabankekin krisiari aurre egiteko dauzkan **egoera trinkoa** eta **kudeaketa eredu egokia**.

Norbanakoen mailegu-zorrokoko **% 3 luzamenduren** batekin lotuta dago pandemia hasi zenetik, espainiar finantza sistemaren erdian kokatuta, hain zuzen ere. **Luzamendu bizien bolumena % 1,7koa** da, eta hauen berankortasun ratioa % 2,2koa da, Taldearen zorro osoaren parekoa.

Ekitaldiko beste ezaugarri nagusietakoa berankortasunaren murrizketa izan da. Zalantzazko aktiboak **245 milioi** eurotan jaitsi dira, eta ondorioz Kutxabank Taldearen **berankortasun ratioa % 2,32ra** hobetu da, alorreko txikienetakoa da, aldea oinarriko 219 puntu hobetuta, bere maileguen kalitatearen maila onaren erakusle.



Zalantzazko aktiboak 245 milioi murriztu dira, eta berankortasun ratioa 66op hobetu da.

Ekitaldian eginiko hornidura handiek errentagarritasun ratioetan eragina izan dute. ROTE % 3,5koa da, eta ROA % 0,3koa.

Abenduaren amaieran, **kaudimen osoa eta Core Tier I ratioa %17,8koak** ziren, 0,6 hobetuta. Ratioa 18,1ekoa izango litzateke kapitalari egotzita egin diren zuhurtziazko kenketak egin izan ez balira. Halaber, palankatze ratioak Estatuko onena izaten jarraitu du, % 9,2koa alegia, alorraren batez bestekoaren oso gaitetik. Seigarren urtez jarraian, sistema osoko kaudimen onena duen erakundea izaten jarraitu du Kutxabanke, Europako Banka Agintaritzak (EBA) argitaratutako gardentasun txostenaren arabera.

Adierazle nagusiak	2020
Berankortasun Ratioa	% 2,32
ROTE	% 3,5
ROA	% 0,3
Core Tier I (Phased in)	% 17,8
Core Tier I (Fully Loaded)	% 17,4
Kapital osoa	% 17,8
Palankatze ratioa	% 9,2
Zalantzazko aktiboen estaldura ratioa	% 77,9